

BIEMH'02. Biek txirbil-harroketa ataleko saria irabazi dute, material deformaziokoa irabazlerik gabe geratu baita

Kondia eta Ona enpresek irabazi dute Makina-Erreminten Diseinu Saria

Diseinua, ergonomia, segurtasuna eta teknologia hartu ditu aintzat epaimahaiak

Joseba Aiertza | BILBO

Elgoibarko Kondia Urbano Conde eta Durangoko Ona Electro-erosion enpresek irabazi dute aurtengo Makina-Erreminten Diseinu Saria. Bi enpresa hauek sariketako harroketa sailean aurkeztu dira, eta saria

ex aequo irabazi dute, biek maila berean, hain zuzen. Sariketako beste atala, materialen deformazioko makinentzat, saridunik gabe geratu da.

Sari banaketa BIEMH'02ren testuinguruan izan zen atzo. Nazioarteko adituek osatutako epaimahaiak makinaren diseinua,

ergonomia, segurtasuna eta teknologia kontuan hartu ditu saridunak aukeratzeko.

Hala, Kondiak irabazitako saria *abiadura eta doitasun handiko mekanizazio P60-V2 zentroa* makinagatik izan da, hain zuzen ere, «diseinuan oinarriturik segurtasuna, ergonomia, teknolo-

gia eta komunikazioa bateratzen dituen multzo osoaren orekarengatik».

Onak bigarren urtez jarraian irabazi du saria, eta epaimahaiak «diseinu globalaren estrategiari eusteagatik» saritu du; horren bidez, «Onak bere produktuen eta komunikazio ele-

mentu guztien bitartez enpresa koherente eta berritzailearen irudia erakusten baitu».

Sari banaketan Josu Jon Imaz Eusko Jaurlaritzako Industria sailburua eta Tontxu Campos Ekonomia Sustapeneko ahal-dun eta Diseinu Zentroko presidentea izan ziren, Erakustazokako eta AFMko arduradunekin eta Espainiako Gobernuko ordezkariarekin batera.

Imazen hitzetan, sektore hau «estrategikoa» da euskal industrian, hainbat alorren inguruko ezagupenak batearazten dituelako, eta «lehengo makina zaharretatik puntako teknologietara igarotzen jakin duelako».

ENPRESAK

Fatronik hiru urtean bikoiztuko du fakturazioa

Fatronik makina-erreminta-ko zentru teknologikoaren arduradunek helburu estrategikoen berri eman zuten atzo. Zentrua 1986an eratu zuten 14 enpresak, ikerketa eta garaipen beharra asetzeko. Gaur egun, zentruak Europa mailako hainbat proiektu zuzendu izan du —une hauetan 10 milioi euroko bi ditu esku artean— eta bere jarduera aeronautika eta energia berrigarrien alorretara dibertsifikatuko du.

Iaz 3,5 milioi euro fakturatu ostean, aurtengo negozio kopurua 4,2 milioi eurora helduko da, eta 2005erako 6,5 milioi eurora iristeko helburua dauka.



Tontxu Campos ahal-dun eta DZko presidentea, Jose Maria Onaindia, Joseba Conde eta Josu Jon Imaz Eusko Jaurlaritzako Industria sailburua.

JOSEBA CONDE KONDIA, URBANO CONDE-KO PRESIDENTEA

«Sari hau enpresarentzat ohore bat da, eta langile guztien meritua»

J.A./DILBO.- Elgoibarko enpresa honek bigarren urtez irabazi du Diseinu Saria. Joseba Condek enpresako langile guztiei eskaini die.

■ **Honelako azoka batean sari hau irabazteak garrantzi handia daukala uste duzu?**

Bai, ohore bat da enpresarentzat. Oraingoa bigarren aldia da saria jaso duguna, 1990ean ere jaso genuen estraineko aldiz egin zenean.

■ **Kondiak garrantzi berezia ematen dio bere makinaren diseinuari?**

Jakina, eta horretarako arduradun teknikoa daukagu: Ramon Alberdi.

■ **Nola iritzi diozu aurtengo makina-erreminta azokari?**

Oraindik erdi-erdian gaude, goiz samar

da azokari buruzko balorazioa egiteko. Zuzenena balorazioa bukaeran egitea izango litzateke.

■ **Zer azpimarratuko zenuke azokatik, zerk deitu dizu arreta bereziki ikusitako gauza guztien artean?**

Zoritzarrez, denbora guztian neure erakustokian egon naiz, eta astirik ere ez dut izan besteena ikusteko, baina oso maila ona dagoela uste dut.

■ **Salmenta kopuru ona lortu duzue?**

Hau ez da saltzeko tokia. Hemen kontaktak egiten dira, eta geroago saltzen da. Makinek diru asko balio dute, eta eroatera datorren jendeak, lehenago konparatu egiten du hemen: ikusi honen eta horrek zer saltzen duten, negoziatu, eta erabakiak gero hartzen ditu.

JOSE MARIA ONAINDIA ONA ELECTRO-EROSION-EKO ZUZENDARIA

«Langileen segurtasuna ere ikusi behar du makinaren diseinuak»

J.A./BILBO.- Durangoko enpresak ere bigarren aldiz jaso du Diseinu Saria, kasu honetan jarraian, enpresak 50. urterena betetzen duenean.

■ **Bigarren aldiz jarraian jaso duzue saria, zer deritzozu?**

Oso garrantzitsua da. Sariketara etorri diren enpresak oso onak eta asko dira, eta irabaztea garrantzitsua da. Gainera, aurtun 50 urte bete ditugu, eta sari bat lortzea opari ederra da. Gure langile guztiei opa gura nieke sari hau.

■ **Onak diseinuaren alde egindako apustuaren saria da?**

Bai, eta ez bakarrik makinaren diseinuaren alde, baizik eta produkzioan eta komunikazioan ere diseinua erabiltzen dugu. Makinek euren funtzioa bete be-

har dute, baina funtzio hori langileen segurtasuna, politasuna eta gauza horiek guztiak ikusita.

■ **Zer irudit zaizu azoka orain arte?** Motelagoa izango zela pentsatuz etorri gara, baina ikusten dut jende mordoxka bat etorri dela. Ea hau mugitzen hasten den; krisia gogorra ez bada ere, krisian gaudelako.

■ **Zer azpimarratuko zenuke?**

Ikusteko aukera handirik izan ez badut ere, uste dut gauza garrantzitsuak daukela abiadura handi eta mikromekanika alorretan.

■ **Negoziarik egin duzue?**

Bai, ez dira asko izan, baina batzuk bai; batzuk aurretik landuta etorri eta hemen itxi ditugunak dira.